

Gazteak →**Txosten bat eta dokumental bat eskuragarri daude sarean**

Gazteen lokalen fenomeno eta Gasteizko aisialdi eta sozializatorako espazio berriak txostena irakurgai dago IKI ikerteriaren webgunean: www.identidadcolectiva.es. Beste alde batetik, dokumentala Cortada film laburren jaialdian eskainiko da, gaur; 18:00etan izango da, Artiumen.

1990**■ Fenomenoa sortu zen hamarkada.**

Gazteen lokalen agerpena merkataritza gune handien ezarpenarekin batera etorri zen, 1990eko hamarkadan; kalearen erabilera mugatzen duten legeek fenomenoaren zabalpena eragin dute, ikerketan agertzen denaren arabera.

Lonja Laket egitasmoa, fenomenora egokitzeko

Hamar urte daramatza Gasteizko Ai Laket elkarteak drogei buruzko informazioa eskaintzen. Orain artean, kalean egon izan dira; gazteak lokaletan batzen hasi zirela ikusita, atez ate horietara joaten hasi ziren. 2009. urteaz geroztik dago martxan, Nafarroako Hegoak taldeak aholkatuta. Joan den astean, Europako

Kontseiluak proiektu horrek drogen prebentzioan duen garrantzia nabarmendu zuen, Pempidou saria emanez. Kalean erabili ohi dituzten *testing* laborategi ibiltariekin lan egiten dute etxabeetan ere. Horrekin batera, gazteak informatzeko materiala eramaten dute gainean. 2009. urtetik hona gazteen 44 lokaletan izan da Ai Laket elkarte proiektuarekin.

Diego Carbajo Padilla ◊ Soziologoa eta IKIko kidea

Gasteizko gazteen aisialdiak azken urteetan izandako bilakaera aztertzeke asmoz, azterketa bat eragin du Identitate Kolektiboen Ikertergiak; txosten bat eta dokumental bat prestatu ditu.

«Kontsumo eta aisialdi ereduaren aldaketaren ondorio dira etxabeak»

Aritz Maldonado Gasteiz

Gazteen lokalen fenomeno eta Gasteizko aisialdi eta sozializatorako espazio berriak buruz egindako azterketaren txostena kalera iratu du IKI Identitate Kolektiboen Ikertergiak. Soziologoa izateaz gainera, IKIko kidea da Diego Carbajo (Gasteiz, 1981), txostenaren egileetako bat. Maria Martinezek eta Benjamin Tejerinak ere parte hartu dute ikerketan.

Ikerketarekin zer ondorioztatu duzue?

Funtsean, gazten etxabeen fenomenoaren Gasteizen oso hedatua egoteaz gainera, haren irudia nahiko simple eta negatiboa dela; datuen argitan, auzokideekin elkarbizitza arazoak sortzen dituztenak gutxiengoa dira. Bertan, zenbait ikasketa prozesu kolektibo ematen direla antzeman dugu: elkarbizitza, ardurak banatzearenak, baliabide eta gatazken kudeaketarenak. Euskal Herriko kulturaren hain esanguratsua den kuadrillaren irudia ebasteaz harago, dituzten alde positiboak ere kontuan izan behar dira.

Zer asmorekin hasi zenuten lonjen ikerketa?

Udaletxeko Gazte Saileko teknikari batzuen proposamena izan zen. Neurrien aurretik, fenomenoaren dimentsioa «neurtu» nahi zuten. Gure asmoa fenomenoaren zergatiak eta logikak azalera-tzea izan da; horretarako, hainbat gazterekin lan egiteaz gainera, zenbait auzokide, guraso eta etxabearen jabeekin bildu gara, besteak beste.

Testuinguru «prekario» batean jatzotzen da fenomenoaren zuzen ustetan.

Gazte etxabeen fenomenoaren Euskal Herrian azken hamarkadetan izan diren ekoizpen, kontsumo eta aisialdi ereduaren aldaketaren ondorioa da. Ikasketa garaiaren lu-

zapanak eta lan edo etxebizitza merkatuen baldintzen okerragotzeak, besteak beste, gazteen familienganako menpekotasuna areagotu du. Lokalak elkarrekin egoteko aukera eskaintzen die, aisialdiren industriak eskaintzen dien baino kostu txikiagoan. Behin-behineko emantzipazio bat ahalbidetuz gainera, elkarre gastronomikoen ideiatik gertu, *low cost* aisialdi kolektibo batekin asmatu dute.

Zein izan da udalaren erantzuna?

Nahiz eta lonjak ixten dituztenak udaltzaingoa eta udaletxeko ingurugiroko teknikariak diren, hitz egin dugun gazteria teknikari eta arduradunen jarrera irekia eta ulerkorra dela esango nuke. Espazio hauetan dauden gazteekin lan egiteko eta nolabaiteko laguntza edo erraztasunak emateko prestutasuna agertu digute. Aurrekontuetan mozketak latzak izan arren, txostenaren aurkeztu dizkiegun zenbait proposamen aurrera eramateko asmoa dute.

Lonjak «aukera sozial» legez ikusten dira txostenaren. Hala ere, ez al zaizue iruditzen kuadrillak berrak egiten dituztela? Haien arteko harremanak sendotu arren, ez al dira gizartetik edota gainontzeko kuadrilletatik berrak egiten?

Gasteizko lonja gehienek kuadrilla bat baino gehiago biltzen dituzte beren barnean, eta urteekin kuadrilla konfigurazio ezberdinak sortzen dituela egiaztatzen dugu. Etxabearen inguruko dena eta tabernekin harremanak izateaz gainera, inguruko lokale-tako kuadrillak ezagutzen dituztela ere antzeman dugu; jarrera paternalista albo batera utzita, harreman horiek bultzatu eta bideratzeko moduekin asmatuz gero, auzo eta hiriarren bizitza sustatzeko aukera izan daitekeela uste dugu.

Izan duzue zuen ikerketa Euskal Herriko beste hiri edo herrirekin batekin alderatzeko aukerarik?

Egungo egoera sozioekonomikoa baldintzatzen duela eta iraupen luzeke fenomeno orokor eta zabal dela jakinik, tamalgarria da gaiaren inguruko hain ikerketa gutxi topatzea. Dakigunez, Portugalen [Bizkaia] eta Donostialde-

an gazte lokalen zenbaketaz harago joan diren ikerketak egin dira, eta hainbat udalerritan zenbait egitasmo abiatu dira. Hala ere, oso aberasgarria litzateke fenomenoaren genero perspektibatik helduz edota herri txikietan gazteak izateak nola eragiten duen aztertzea, ezagutzen sakondu ahal izateko.

Gazteak aipatzen hasita, zein eragin du Gasteizko ikerketan? Gazteak erakunde publikoen esku hartzea baztertzeko dutela ere badio txostenak.

Gazteekin zerikusia duten beste prozesu asko legez, gizarte arazo gisa definitua izan da hasieratik, eta horrek ondorio korapilotsuak izan ditu. Esate baterako, erakunde publikoenganako mesfidantza legitimo hori. Lokalen ikerketan ez diegu gazteak Gasteizko gazte-txeari buruz zehazki galdetu, baina ez dut uste aukera kontrajarririk direnik hauek. Espazio propioak izan eta kudeatzeko beharri erantzuten dioten heinean euren arteko sinergiak sustatzea ondo legoke. Gizarte errortik aldatzen ari da, eta modu berean baita politika —bere zentzu zabal eta lurrunean ulertuta— egiteko modua ere; hori onartu egin behar da.

